



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

*Gardentasun aktiboa eta udal
informazio publikora sarbidea betetzen
denaren jarraipen eta ebaluazio
txostena*

2016

0 Aurkibidea

1	SARRERA.....	3
1.1	Zergatik Ermuko Udalaren gardentasunaren egoeraren inguruko memoria?	3
1.2	Zer esan nahi du Gardentasunak?	3
1.3	Gardentasuna eta gobernantza	4
2	HIRITARREN PARTAIDETZA ETA GARDENTASUN ZERBITZUA	5
2.1	Gure misioa	5
2.2	Nola saiatzen gara hiritarren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzen?	6
3	GARDENTASUNA ORDENAMENDU JURIDIKOAN.....	7
3.1	Zer da gardentasuna edo informazio aktiboa?	8
3.2	Zertan datza informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeak?.....	9
3.3	Gure konpromisoa hiritarrek: Udal gardena.....	9
3.4	Ermuko Udalaren gardentasunaren garapena eta egoera	10
4	GARDENTASUN AKTIBOAREN EBALUAZIOA.....	12
4.1	Deskribapena.....	12
4.2	Gardentasunaren arloak	13
4.2.1	<i>Erakundeari eta antolaketari buruzko informazioa</i>	<i>13</i>
4.2.2	<i>Gobernu organoen bilkurak</i>	<i>17</i>
4.2.3	<i>Estrategia eta gobernuaren jarduera.....</i>	<i>17</i>
4.2.4	<i>Ekonomi kudeaketa</i>	<i>19</i>
4.2.5	<i>Udalaren kontratuak</i>	<i>21</i>
4.2.6	<i>Hirigintza eta ingurumena.....</i>	<i>22</i>
4.2.7	<i>Udal arau eta ordenantzak</i>	<i>24</i>
4.3	ITA Gardentasun Indizea.....	25
4.4	Informazioa eskuratzeko eskubidea	25
4.5	Baloratu gure gardentasuna	26
4.6	Udal Gardentasunarekin lotura duten edukiak	27
4.6.1	<i>Gobernu organoen saioak</i>	<i>27</i>
5	GARDENTASUN PASIBOAREN EBALUAZIOA.....	29
5.1	Udal informazio publikoa eskuratzeko eskaerak	29
5.2	Eskaerak kanalaren, eskatzailearen eta tipologiaren arabera.....	31
5.3	Hiritarrei erantzuna ematea eta epeak betetzea.....	33
6	ONDORIOAK	36

1 SARRERA

1.1 Zergatik Ermuko Udalaren gardentasunaren egoeraren inguruko memoria?

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, apirilaren 7koa (hemendik aurrera ETEL), gobernu irekia, gardentasuna, datu irekiak eta herritarren partaidetza bermatzen dituzten oinarriak erregulatzeari buruz mintzo da VI Tituluan, erakundeen kalitatea hobetzeko eta Euskadiko gobernu maila ezberdinen eta hiritarren arteko harremana berregituratzeko bide gisa.

Eta, erregulatzen dituen oinarrien artean, urte natural bakoitzeko publizitate aktiboaren eta informazio publikora sarbidearen betetze graduaren inguruko txostena eratzeko beharra adierazten du ETELen 66. Artikuluak.

Betebehar hori burutzeko, honako Memoria hau sortu da. Bertan, legez publizitate aktiboaren arloan bete behar dena ikertu eta betetze gradua azaltzen du, hiritarrek gardentasun portalean gehien bisitatutako edukiak erakutsiz. Gainera, Ermuko Udalean informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzan nabarmenenak izan diren atalak ere biltzen dira.

1.2 Zer esan nahi du Gardentasunak?

Gardentasunaren abiapuntua honako suposiziotik abiatzen da: hiritarrek informazioaren bitartez soilik parte hartu dezakete bizitza publikoan ezagutzarekin, haren garapenean eragina izateko eta ekimen publikoak eragin ditzakeen eraginkortasun ezak, akatsak edo arbitrariotasunak aurreikusi eta kontrolatzeko.

Horren guztiaren ondorioa kudeaketa publikoa hobetzea, demokrazian sakontzea eta, orokorrean, Administrazio Publikoen gizarte- eta ekonomia funtzionamendu egokiagoa lortzea da, onuraz betetako zirkulu bat, alegia.

Gardentasuna, beraz, Administrazio Publikoek eratzen duten informaziora sarbidea bermatzea da, gobernuaren eta gizartearen artean konfiantza sortzeko eta, horrela, biztanleria arduratsua eta parte-hartzailea bultzatzea.

Erakunde Publikoen arloko gardentasunak gobernu gaiak hiritarrei zabaltzea esan nahi du, eurengan eragina duten erabakietan parte hartu ahal dezaten. Horrela, administrazioaren esku uzten duen boterearen zati bat itzultzea da, kontu publikoen eraikuntzan parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko.

Gardentasunaren inguruan guztion artean adostutako definiziorik ez dagoen arren, adostasun orokortua dago jakiteko eskubidearekin eta informazio publikoa eskuratzearekin lotura duela pentsatzean.

Guztiok ados gaude informazio falta konfiantza eza eragiteko gakoa dela esaten dugunean. Horregatik, erakundearen gardentasuna egungo egoera aldatzeko baliagarria izan daiteke.

Informazioak bere horretan ez du boterea izatea esan nahi, baina oinarritzko lehenengo pausoa da botere politikoaren eta ekonomikoaren egikaritzan. Demokrazia prozesuan benetako parte-hartzea izateko modu bakarra gure gobernuaren ekintzen eta politiken

inguruko informazioa izatea da, edo zein onura eta zerbitzutarako eskubidea dugun jakitea, edo egokitzen zaiguna jasotzen ari ote garen jakitea.

Administrazio Publikoak egiten ari direna jakitea oinarritzakoa da gizarteak arduradun egin ditzan eta funtzionatzeko duten modua hobetu dezaten. Informazioa faltak edo hori eskuratzeko ezintasunak askotan gaitasun mugatuak ditugula sentitzea, errezeloak eta etsipena ekar dezake.

Bestalde, informazio egokia eta eguneratua eskuratu ahal izateak Administrazio Publikoen eta gizartearen artean harreman osasungarriak eratzeko oinarriak eraikitzea ahalbidetu dezake, esaterako, hartutako erabakien eta martxan jarritako politiken inguruko datuetara sarbidea eskainiz.

Hori horrela, hiritarrek erakundeen egoeraren eta errekurtsio publikoen kudeaketaren inguruan iritzia eraikitzea da helburua.

1.3 Gardentasuna eta gobernantza

Gardentasuna estuki lotuta dago gobernantzarekin, hau da, lankidetzaren bitartez politikak martxan jartzeko modua. Bide horretan, gobernuko ordezkariak, merkatukoak eta gizarte zibilekoak nahastutako talde publiko eta pribatuaren parte hartzen dute, administrazio kultura berri bat eratzeko, hiritarrek kudeaketa publikoaren inguruan duten ikuspegia hobetzea posible egingo duena eta horri balioa emango diona.

Gobernantza onaren oinarri garrantzitsua da gardentasuna. Izan ere, erabakiak hartzearen inguruko argitasunak eta gardentasunak pertsonen gaitasunak hobetzen ditu eta parte hartzera bultzatzen ditu, esaterako, politikak eratu eta martxan jartzeko, euren eragiten dieten erabakietan eskua hartzeko eta politiken arduradun diren pertsonen euren boterea interes orokorraren alde erabili dezaten erakusteko.

Gobernantza kontzeptua, bestalde, 2009ko urtarrilaren 21ean Barack Obama Ameriketako Estatu Batuetako presidentek aurkeztu zuen eta ezagun egin zen *Gobernu Irekiaren eta Gardentasunaren inguruko Memorandumarekin* lotzen da. Bertan, gobernu onaren hiru zutabeak aipatzen dira: batetik, **gardentasuna**, hiritarren aurrean administrazioaren kontuak argitaratzea bultzatzen duen eta ekintza planen inguruko informazioa eskaintzen duen gobernu gisa ulertuta, datu horiei esker arlo publikoa kontrolatzea eta balore ekonomikoa eta soziala eratzeko baimenduz; bestetik, **elkarlana**, gobernuak hiritarrak eta gainontzeko agenteak administrazioaren lanean konprometitu eta inplikatzeko dituen oinarri gisa ulertuta; eta, azkenik, **parte-hartzea**, zeinaren bitartez gobernuak politika publikoen osakeran aktiboki parte-hartzeko eskubidea ematen dien hiritarrei. Horrela, administrazioa bera hiritarren ezagutzaz eta esperientziaz aberasten da.

Modu horretara, gertuko hedapen sistemen bitartez informazioa bermatzen bazaie hiritarrei, euren parte-hartzea ahalbidetzen da eta, era berean, kudeaketa publikoaren gardentasun eta erantzukizun handiagoa lortzen da.

Gainera, politika publikoen planifikazioak eta ebaluazioak gainontzeko ekintza publikoekin koherentzia izatea bermatzen du, eta eraginkortasun eta efizientzia maila altuagoa lortzen da, Europar Batasunaren Oinarritzako Eskubideen Gutunean aldarrikatzen den gobernu onaren eta administrazio onaren eskubidean azaldu bezala.

ETELek hori kontuan izan du, eta gobernu irekiaren kontzeptua jaso du bere artikuluetan. 47. artikuluan, hain zuzen, horrela azaltzen du: *“Lege honen helburua da udalerrien eta gainerako toki-erakundeen gobernu irekia bermatzea, erakundeen kalitatea indartzeko eta Euskadiko tokiko gobernu-maila ezberdinen eta herritarren arteko harremanetarako esparru berri bat finkatzeko.”*

Artikulu horren bigarren atalean, gobernu irekia bermatzeko bitarteko ezberdinak azaltzen ditu:

*“a) **Gardentasuna sustatzea**, eta titulu honetan eta gardentasunaren arloko oinarritzko legerian jasotako publizitate aktiboko betebeharrak bete.*

*b) **Informazio publikoa eskuratzea**, gardentasunaren arloko oinarritzko legeriak eta lege honek aurreikusitakoarekin bat etorrira.*

*c) Informazio publikoa **datu ireki** gisa eskueran jartzea; hau da, halatan non datuak eskueran eta irisgarri egon ahal izan daitezen erreprodukzio, aldaketa edo beste datu batzuekiko integrazioarako arrazoizko kostuarekin, eta ahalbidetu dadin informazio hori pertsona orok askatasunez erabiltzea, berrerabiltzea eta birbanatzea, erabat errespetatuz pribatutasun, segurtasun edo jabetzagatiko murrizketak.*

*d) **Herritarren partaidetzarako** tresnak eta bideak garatzea, titulu honetan zehaztutakoarekin bat etorrira.”*

Hirugarren atala amaitzeko, honakoa adierazten du: *“Lege honetan aurreikusitakoaren arabera partaidetzarako kanalak zehazteaz gain, gobernu irekia gauzatzeko bitartekoen helburua da herritarrek modu sinesgarrian informatzea tokiko gobernuek nola betetzen dituzten euren eginkizunak, nolako politika publikoak abiarazten dituzten eta nola kudeatzen dituzten baliabide publikoak, era horretara arduradun publikoen kontuak ematea errazteko.”*

Laburbilduz, une honetatik aurrera, gobernu irekia, gobernu ona edo gobernantza kontzeptuak zehazten diren postulatuak adiera formalak dituzte ETELen eta, beraz, edozein administrazioari aplikatu eta exigitu ahal dira (49. artikulua).

2 HIRITARREN PARTAIDETZA ETA GARDENTASUN ZERBITZUA

2.1 Gure misioa

Ermuko Udaleko Hiritarren Partaidetza eta Gardentasun Zerbitzua Plangintza Estrategikoa eta Berrikuntza Alorrean kokatzen den organoa da. Honen misioa udal gardentasuna kudeatzea eta hobetzea da, bai publizitate aktiboari dagokionean, baita informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeari dagokionean ere.

Jakitun gara gardentasunak berebiziko garrantzia duela hiritarrek udal administrazioarekiko duten konfiantza areagotzeko, baita administrazio modernoago eta eraginkorrago bat eraikitzeke ere. Modu honetara, gainera, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasuna, informazioa atzitzea eta gobernu ona arautzen dituenak, eta 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, eskatzen dutena betetzen dela bermatzen dugu.

Hori horrela, pasatu den 2016ko maiatzean Zerbitzu hau eratu zen, Ermuko nahiz munduko edozein lekutako pertsonak aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskaerak kudeatzen eta izapidetzen dituen teknikari batek osatzen duena.

Dokumentu honen helburua gardentasun aktiboa eta 2016ko azken zortzi hilabeteetan jasotako informazio publikoa eskuratzeko eskaerak nola kudeatu diren azaltzea da. Epe hori hartu da kontuan, zerbitzu hau izapide horiek kudeatzeaz arduratu den data-tartea delako. Gainera, eskuratutako datuak ebaluatu eta ondorio batzuk atera dira, etorkizunera begira hiritarrei eskaintzen diegun zerbitzuan aurrera egin eta hobetzen joateko.

2.2 Nola saiatzeko gara hiritarren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzen?

Gure Zerbitzuak, besteak beste, honako funtzioak betetzen ditu, gardentasuna, informazioa atzitzea eta gobernu ona arautzen dituen Legeak (GIAGOAL) zehazten duen moduan:

“a) Publizitate aktiboari dagokion informazioa bildu eta argitaratu.”

Eskubide hau bete ahal izateko, gardentasun aktiboari eta pasiboari buruzko bi formazio ekintza orokor nahiz aurreratu burutu ditugu Udalbatzaren zerbitzura dagoen langileria osoaren artean. Saio horietan hemendik aurrera nola antolatu behar dugun azaldu da, hiritarren eskura jarri behar dugun informazioaren irismena, zehaztasuna eta puntualitatea bermatzeko.

“b) Informazioa eskuratzeko eskaerak jaso eta izapidetu”

Betebehar honek erronka garrantzitsu bat jarri digu mahai gainean, agerikoa den moduan, zerbitzu berri bat martxan jarri behar den kasu bakoitzean gertatzen den bezala. Hasiera batean ez genekien zenbat eskaera jasoko genituen, ezta erakundean zenbat denbora beharko genuen ere, ordura arte jasotzen genituen informazio eskaera bakarrak zinegotziek bidalitakoak baitziren, udal gobernuaren ekintza kontrolatu ahal izateko.

Dena dela, kontu honetan, hiritarrek bidaltzen dizkiguten kexen kasuan bezala, uste genuen antzeko fenomeno bat gertatuko zela: hasieran, hiritarrak “lotsati” ager zitezkeela pentsatzen genuen, eta jende gutxi eskatuko zuena informazio publikoa eskuratzeko, baina denborarekin eskaerak areagotuko zirela, batez ere, emandako erantzunak egokiak izanez gero.

“c) Beharrezkoak diren barneko izapideak egin eskatutako informaziora sarbidea eskaintzeko.”

Eskaintzen den informazioaren kalitate teknikoak eta informazio horren “koherentzia estrategikoak” arduratu egiten gaitu, ez baitugu nahi hiritarrei edozein dokumentu igortzea, edukiak ulergarriagoak izateko “esfortzua” egin gabe; izan ere, horrek askotan edukiak berridaztea, formateatzea, etab. esan nahi du, eta aurreikusita ez genuen beste lan bat egin beharra.

“d) Informazioa eskuratzeko eskaeren izapidetze egokiaren kontrola eta jarraipena egin.”

GIAGOALek administrazio espedientea izapidetzearen inguruan *"egokia"* hitza erabiltzeak zeregin hori ongi ulertzeko beharra erakusten du, argia baita bere esanahia, edukia eta garapena.

Hori horrela, ez da nahikoa pertsona batek dokumentazioa eskaintzea, automatismo maila jakin batekin, hori makina batek ere bete baitezake. Gakoa eskaera horien jarraipena egitea da, eta informazioaren titularra edo kudeaketaren arduraduna denari dokumentazioa eskatzea erantzuteko epeak betetzen direla bermatzeko.

"e) Informazioa eskuratzeko eskaeren erregistroa egin.

f) Gehien eskatzen den informazioa webgunean edo egoitza elektronikoan eskuragarri dagoela ziurtatu."

Funtzio honen bitartez, hiritarrek eskatzen duten informazioa ezagutaraztea errazteaz gain, informazioa prestatu eta antolatzen da hiritarren eskaerei aurrea hartu ahal izateko eta eskaera egin aurretik informazioa emateko. Labur esanda, informazio *gehigarritantz* bidea egitea.

Horretarako, gehien eskatzen den edo garrantzitsuena izan daitekeen informazioa hartzen da oinarri gisa, hiritarrei jakinarazteko eskaera egin behar izanik gabe.

3 GARDENTASUNA ORDENAMENDU JURIDIKOAN

19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasuna, Informazioa Atzitzea eta Gobernu Ona Arautzen dituen (hemendik aurrera GIAGOAL) gure ordenamendu juridikoan zegoen hutsunea betetzeko sortu da, eta edozein ekintza politikotan gardentasuna, informazioa sarbidea eta gobernu onerako arauak oinarritzko ardatzak izango direla zehazten du. Izan ere, botere publikoa kritikoa, zorrotza eta partaidetza eskatzen duen gizarteari erantzuten dion prozesuari buruz hitz egiten hasteko, beharrezkoa da arduradun publikoen ekintzak aztertzeari ekitea, hiritarrek eurei eragiten dieten erabakiak nola hartzen diren jakitea, funts publikoak nola kudeatzen diren ezagutzea edota administrazio publikoak zein irizpideren arabera jokatzeko duten jakitea.

ETELek gobernu onaren eta gobernu irekiaren testuinguruan kokatzen du gardentasuna. Araudi zorrotza zehazten du tokiko euskal erakundeek derrigorrez bete beharreko publizitate aktiboko atalekin, eta arloka zehatz-mehatz azaltzen du egin beharrekoa. Gainera, gardentasunaren bete beharrak tokiko errealitatera eta arautzeko instrumentuetara egokitzen ditu, ekonomiko-finantzariak edo tokiko erakundeetan sor daitezkeen beste izaera batekoak. Horrela, eskakizun horiek legearen xedapen iragankor baten bidez moldatzen dira, eta araudiaren aplikazioa udalerrri bakoitzak duen biztanleria kopurura egokitzen da. Horrek ez du esan nahi, ordea, borondate politikoa eta beharrezko baliabide teknikoak izanez gero, legeak zehaztutako eskakizunetara iritsi ezin denik.

Euskal Autonomia Erkidego mailan, 2014an Eusko Jaurlaritzak aurrez onartutako Euskal Administrazio Publikoaren Legearen inguruko eztabaida hasi zuen aurreko legealdian Eusko Legebiltzarrak. Aipatutako lege horretan, IV. titulua gardentasunaren erregulazioaren inguruan mintzatzen zen, eta titulu horretako III. kapituluak informazioa eskuratzeko eskubidea aipatzen zuen 93. artikulutik 106.era bitartean.

Dena dela, lege proiektua 2015eko apirilean baztertu zuen Eusko Jaurlaritzak, une hartako testuinguru politiko negatiboa argudiatuz. Hori horrela, Euskadin gardentasun kontuak oraindik ere erregularizatu gabe ditugu. Aurreko Eusko Legebiltzarrak eskatu zuen, baina, arlo horri berriro ekitea, aurreko proiektutik banandu eta duen esanahiari balio gehiago emanez.

Bestalde, kontuan izatekoak dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren 4/2016 Foru Araua, otsailaren 6koa, gardentasuna eta informazio publikora sarbidearena, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko gardentasunarena. Arau hauetako bakoitza ezin da aplikatu zuzenean bere lurraldeko tokiko erakundeetan zuzenean, foru administrazioarako sortuak baitira. Baina bi lege testuak kontuan hartzeko moduko arautzeko instrumentuak dira. Izan ere, gardentasunerako praktika onak ezartzen dituzte, gure udaletan erabili ditzakegunak oinarritzko legeak ezartzen dituen gutxienezko edukiak gainditu ahal izateko.

Araudi horietatik ondorioztatzen da gardentasunak bi adar dituela: batetik, publizitate aktiboa, administrazioak hiritarrek eskatu gabe ekin eta informazioa argitaratu behar dutena, GIAGOALeko I. tituluko II. kapituluan eta ETELEko VI. tituluko II. kapituluan arautua; eta bestetik, gardentasun pasiboa, hiritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidearen ingurukoa, GIAGOALen III. kapituluan eta ETELen VI. tituluko III. kapituluan arautua.

3.1 Zer da gardentasuna edo informazio aktiboa?

Gardentasun aktiboa erakunde publikoek euren ekintzen, aurrekontuen eta politiken inguruan duten informazioa argitaratzeko eta jakitera emateko duten betebeharra da.

GIAGOALek informazio edo publizitate aktiboa eskaintzeko betebeharrak zabaltzen eta indartzen ditu arlo ezberdinetan. Erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioari dagokionez, administrazioak burutzen duen funtzioa, bete beharreko araudia, antolamendu egitura, plangintza instrumentuak eta betetze mailaren ebaluazioa argitaratzera behartzen ditu instituzioak.

Garrantzi juridikoko informazioaren eta administrazioaren eta hiritarren arteko harremanean eragin zuzena izan dezakeen dokumentazioaren inguruan, GIAGOALek dokumentu sorta zabala aipatzen du, eta horiek argitaratzean, segurtasun juridiko handiagoa lortzen da.

Ekonomiarekin, aurrekontuarekin eta estatistikarekin lotutako garrantzizko informazioaren arloan ere katalogo zabala zehazten da. Horrek guztiak irisgarria eta ulergarria izan beharko du hiritarrentzat; izan ere, errekurtso publikoen erabilerarako eta kudeaketaren kontrolerako erreminta egokiak dira.

Bestalde, sarritan informazio eskaera gisa agertzen diren gai guztiak argitaratzeko beharra adierazten du legeak, hiritarren interesa eta gardentasuna ahalik eta egokien uztartzeko.

Informazio kopuru eskerga hori bideratu eta publizitate aktiboari dagokion legea betetzeko, GIAGOALek gardentasun portalaren sorrerari eta garapenari buruz hitz egiten du, ezinezkoa baita gardentasunaren betebeharrak burutzea informazioa argitaratzeko tresna egokiak izan eta sarrera erraztu gabe.

GIAGOALek zehazten du gardentasunaren betebeharrei erantzuten dien informazioa egoitza elektronikoetan edota webguneetan argitaratu beharko dela, modu argian, egituratuan, interesdun pertsonak ulertzeko moduan eta, ahal izanez gero, berrerabilgarriak diren formatuetan. Irisgarritasuna, interoperabilitatea, kalitatea eta argiratatutako informazioa berrerabiltzea, identifikazioa eta kokapena errazteko bideak zehaztu behar dira, beraz.

Horren harira, ETELen 63.1 artikulua adierazten du tokiko erakundeek gardentasun portalak eratu ahalko dituztela euren webgune edo egoitza elektronikoetan. 20.000 biztanletik gorako taldea kudeatzen duten erakundeek kasuan, beharrezkoa izango da portala sortea, artikulua bereko bigarren atalak zehazten duen moduan.

Gainera, ETELek euskal erakundeek publizitate aktiboaren arloan derrigorrez bete behar dena adierazten du VI. tituluko II kapituluan, 50 eta 58 artikuluen artean, biak barne.

3.2 Zertan datza informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeak?

Gardentasun pasiboa deitzen dena da. Hiritarrek duten eskubidea da, baina ez da oinarritzko eskubidetzat hartzen, lege arruntez arautzen baita lege organikoak beharrean. Hori horrela, ez du oinarritzko eskubideek izaten duten babes gehigarria jasotzen.

Titularitate unibertsaleko eskubide gisa azaltzen du GIAGOALek informazioa eskuratzeko eskubidea; hau da, pertsona guztiek, fisikoek nahiz juridikoek, atzeritarrek barne, eskubide hori dute pertsona izate hutsagatik.

ETELek VI. tituluko III. kapituluko 62. artikulutik 66.era arautzen ditu *“Informazio publikoa eskuratzeari buruzko printzipioak eta erreklamazio organoa”*.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 35 eta 37 artikuluetan informazioa eskuratzeko eskubideari buruz azaltzen zuenarekin alderatuta (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, indargabetua), egungo araudiarekin ez da beharrezkoa informazioa eskatzen duen pertsonak interesdun izaera bermatu behar izatea.

Hori horrela, edozein hiritarrek, hala izate hutsagatik, informazioa eskatu dezake interesa duela arrazoitu beharrik gabe eta eskatzen duena zertarako den ziurtatu beharrik gabe. Salbuespen bakarrak araudian bertan azaltzen direnak dira, eta izaera pertsonala duten datuen babesarekin eta legedian zehazki adierazten diren gai jakin batzuekin lotuta daude.

GIAGOALek eskubide hori I. tituluko III. kapituluan arautzen du, 12. artikulutik 24.era, biak barne, eta LILEk, aldiz, 50. artikulutik 66.era bitartean, biak barne.

3.3 Gure konpromisoa hiritarrekin: Udal gardena

Ermuko Udalean erabateko konpromisoa daukagu gardentasunaren kultura sustatzearekin eta errotzearekin errekurtsu publikoen erabilerari, hiritarren iritziaren arretari eta gizarteari kontu-emateari dagokionean, gure eguneroko kudeaketaren eta ekintzaren ezaugarri nagusia izan dadin. Izan ere, konfiantza errazten du eta hiritarrek jada euren den informazioa berreskuratu dezakete kudeatzaileen gaineko kontrol zorrotzagoa burutzeko, proposamenak aurkezteko edota oposizio lan egokia egin ahal izateko. Labur esanda, gizarte arduratsua, ongi informatua eta kontu publikoetan parte-hartzailea dena osatzeko.

Ermuko Udalean ez gara mugatzen legea zuzenki betetzera, haratago joan nahi dugu eta gure gobernu-ekintzaren oinarri gisa, borondatez, gardentasuna eta ardura jarri nahi ditugu. Oso konbentzitura gaudelako egin nahi dugu. Horregatik, gardentasuna gure Udalaren efizientzia eta eraginkortasuna hobetzeko bultzatu dugu, ondorioz, hiritarrei zuzenean onura eragiteko kalitate handiagoko zerbitzuak eskainiz.

Gardentasuna, beraz, gobernu ekintzaren eta Ermuko Udalaren kudeaketaren oinarritzko zutabea da, eta oso konprometitura gaude informazioaren unean uneko kudeaketarekin eta gure barneko kudeaketaren efizientzia hobetzearekin. Horretarako, gure lan egiteko modua, ekintzak garatzeko erabiltzen ditugun bideak eta hiritarrekin harremantzeko moduak berrikusi behar ditugu; izan ere, gertuago egoteak gure hiritarren aldetik zorrotasun gehiago eskatzea ekartzen du.

Gauza guztien gainetik, ordea, gardentasunak aukerak eskaintzen ditu: barnera begira, gure barneko antolaketa eta funtzionatzeko modua hobetzera behartzen gaitu, kultur aldaketa deritzona, alegia; eta kanpora begira, aldiz, hiritarrek Udala gertuko erakunde bezala sentitu eta konfiantza areagotzeko aukera izan daiteke.

3.4 Ermuko Udalaren gardentasunaren garapena eta egoera

Gure Udalaren gardentasunaren betetze mailaren inguruko lehenengo Memoria eratzearekin batera, orain arte egindako bidea berrikusteko aprobetxatu nahi dugu. Errepaso labur baten bitartez, bultzatu eta abian jarri ditugun ekimen eta proiektu garrantzitsuenak ezagutuko ditugu, erabat modernoa eta berritzailea den udal administrazioa lortzeko bidean, hiritarren interesei eta beharrei ahalik eta egokien erantzun eta Ermuko biztanleen bizi baldintzak eta kalitatea hobetzea helburu dituen.

Informazioa denbora errealean kudeatzeak eta teknologiaren eta ezagutzaren kudeaketak barneko lanen efizientzia hobetzea ekarri dute. Gure lan egiteko modua, ekintzak garatzeko erabiltzen ditugun bideak eta hiritarrekin harremantzeko moduak berrikusi ditugu. Azken horretarako, 2005eko urtarrilean zabaldu zen udal webgunea eta 2008ko apiriletik martxan dagoen Abiapuntu Hiritarren Arreta Zerbitzua ditugu. Gainera, Erregistro Elektronikoa txertatu genuen 2007ko martxoan araudia onartu ostean; 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, hiritarrak zerbitzu publikoetara elektronikoki sartzea arautzen dituen legea onartu baino lehenago.

Udala hiritarregana gerturatzen jarraitzeko lanean dihardugu, egiten ditugun ekintzei eta Ermuko hiritarrek eskuratu ditzaketen zerbitzu eta laguntzei buruzko informazioa emanez. Horretaz gain, Ermuko Udala ez zen 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasuna, informazioa sarbidea eta gobernu ona arautzen dituen onartzeko zain egon. Gure Udalean informazioaren kultura sustatzen hasi ginen eta, legea onartu baino lehenagotik, araudiak 2015ko abendutik aurrera erakunde publiko guztiei eskatzen dien informazioa hiritarrei eskaintzen hasi ginen.

Gure helburuak bete ahal izateko, 2012ko irailean atal berezi bat zabaldu genuen udal webgunean, "*Transparencia Internacional España*" gobernu kanpoko erakundearen metodologiara egokitze. Erakunde horrek 2008. urtean abian jarri zuen Udalen Gardentasun Indizea edo ITA (*Índice de Transparencia de los Ayuntamientos*) deitzen dena. Horri esker, Espainiako Udalek euren biztanleei eta gizarteari orokorrean eskaintzen dieten informazio ireki eta gardentasun maila ezagutu daiteke.

ITaren bitartez, urtero ebaluazio bat burutzen da Espainiako 110 udalerri handien artean. 80 indikadore erabiltzen dira analisia egiteko, honako 6 atal handietan banatuta daudenak: Udalbatza; hiritarrek eta gizartearekin harremanak; ekonomia eta finantza gardentasuna; gardentasuna zerbitzuen kontratazioan; gardentasuna hirigintzan eta obra publikoetan; eta gardentasun lege berria.

2013ko apirilean, Ermuko Udalak <http://www.ermua.es> udal webgunean argitaratzen ditugun datuen eta informazioaren ebaluazioa eskatu zion Transparency International erakundeari, ITaren 80 indikadoreak kontuan izanda, informazioaren gardentasunean aurrera egiteko eta indikadore horiek betetzen direla bermatzeko helburuarekin.

Transparency International erakundeak egin du Ermuko Udalaren ebaluazioa, nahiz eta Espainiako 110 udalerri handienetako bat ez izan. Horrela, honakoa azaldu zuen erakundeak: *“Borondatezko ebaluazioak egiten dituzten udalen kasuan, ez dugu notarik edo baloraziorik ematen nahiz argitaratzen, ITaren puntuazio ofizialekin nahastu ez daitezen eta sailkapen paralelorik ez dadin sortu. Puntuazioak oso onak diren kasuetan, ordea, gure webgunean argitaratuko ditugu ITA-Borondatezko Udalak atalean”*.

Transparency International erakundearen webgunean (<http://www.transparencia.org.es/ITA%20AÑOS%20ANTERIORES/Aytos.%20evaluados%20voluntariamente.htm>) aipatzen dira, meritu gisa, indize horren metodologiari jarraiki balorazio oso onak lortu dituzten udalak eta euren webguneak. Zerrenda horretan, Ermuko Udala topatu dezakegu.

Horretaz gain, Ermuko Udala EUDELeK sortutako Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarean dago. Talde horren xedea udal mailan gardentasuna txertatzeko Euskadin erreferente izango den modeloa sortzea eta finkatzea da.

EUDELen webgunean, <http://www.eudel.eus/destacados/transparencia/?lang=eu> estekan, Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarearen helburuen, kideen, lan arloen eta emaitzen inguruko informazio garrantzitsua argitaratzen da.

Gardentasuna sustatzeko eta hiritarrei eskaintzen diegun informazioa hobetzeko neurri gisa, 2015eko maiatzaren 6tik aurrera, Udalbatzaren Osoko Bilkurak eta Informazio Batzordeak publikoak dira Udalbatzak berak hala erabakita eta onartuta 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran. Ondorioz, 2015eko maiatzaren 6tik, aipatutako gobernu organoen saioak grabatu eta emititu egiten dira, eta zuzenean *streaming* bidez jarraitu daitezke udal webgunearen edota udalaren YouTubeko kanal ofizialaren bitartez. Gainera, saioa amaitu ostean ere edozein momentutan ikusteko aukera eskaintzen dugu eskaripeko zerbitzuaren bitartez (ingelesez, VOD).


2016ko irailaren 6an, udal webgunean ordura arte ikusgai geneukan gardentasun atala berrantolatzen hasi ginen, gardentasun portala bihurtu arte. Horren bitartez, webguneko atal ezberdinetan argitaratuta genuen informazio guztia leku berean batzen saiatu gara, eta horrela, denboran zehar aldatu daitezkeen indikadore batzuei soilik begiratu beharrean, gardentasunaren arlo guztiak biltzen dira.

4 GARDENTASUN AKTIBOAREN EBALUAZIOA

4.1 Deskribapena

Udal webguneko gardentasun atalera joan daiteke honako URLari jarraituz: http://www.ermua.es/pags/transparencia/eu_index.asp


Bere horretan mikrosite bat sortu aurretik, Ermuko Udala 2012ko irailaren 6an argitaratzen hasi zen ITA indikadoreen atal bat soilik zegoen. 2016ko irailaren 9an, vaina, lau urte geroago, Udal honek mikrosite zehatz bat sortu zuen gardentasunaren inguruko informazio guztia biltzen duena.



1 Ilustrazioa: 'Udal Gardentasuna' mikrositearen azaleko orrialdearen analisisa

Google Analyticsek 2016ko irailaren 6tik abenduaren 31ra bitartean eskaintzen dituen orrialdearen analitketan ikus daitekeenez, menuan gehien ikusitako atalak Gardentasun-arloak (%4,6) eta ITA Gardentasun Indizea (%3,7) dira.

Portadan agertzen diren atal zehatzei begiratzuz, bisita gehien jaso dituztenak, ezbairik gabe, Korporazioari eta Tokiko Gobernuari buruzko informazioa (%24), Udal Aurrekontua (%13), Mapa Estrategikoa (%4,3) eta Gobernu-organoen bilkurak (%3,1) izan dira.



2 Ilustrazioa: 2016/09/06 – 2016/12/31 tartean Gardentasun orrialdearen azalak jasotako bisiten grafikoa

☐	Título de la página ?	Número de visitas a páginas ?	Número de páginas vistas únicas ?	Promedio de tiempo en la página ?
		691 % del total: 0,14 % (485.473)	541 % del total: 0,18 % (299.116)	00:01:06 Media de la vista: 00:00:57 (16,01 %)
☐	1. Transparencia municipal	416 (60,20 %)	346 (63,96 %)	00:01:33
☐	2. Transparencia municipal - Índice de Transparencia ITA	115 (16,64 %)	63 (11,65 %)	00:00:20
☐	3. Transparencia municipal - Ámbitos de transparencia	106 (15,34 %)	83 (15,34 %)	00:00:19
☐	4. Transparencia municipal - Derecho de acceso a la información	40 (5,79 %)	36 (6,65 %)	00:01:40
☐	5. Transparencia municipal - Valora nuestra transparencia	10 (1,45 %)	9 (1,66 %)	00:00:25
☐	6. Udalaren gardetasuna - Índice de Transparencia ITA	3 (0,43 %)	3 (0,55 %)	00:00:46
☐	7. Ayuntamiento - Transparencia municipal	1 (0,14 %)	1 (0,18 %)	00:00:00

1 Taula: 2016/09/06 – 2016/12/31 tartean 'Udal Gardentasuna' atalak jasotako bisitak

Orrialdearen analitikak eskuratzeko metodoari jarraiki, gardentasunaren arlo ezberdinetako bakoitzean bisita gehien jaso dituzten atalak ikus ditzakegu.

4.2 Gardentasunaren arloak

4.2.1 Erakundeari eta antolaketari buruzko informazioa

Jarraian, atal honetan hiritarren aldetik interes handiena piztu duten edukiak azaltzen dira.

Información institucional y organizativa

Sesiones de los órganos de gobierno

Estrategia y acción de gobierno

Gestión económica

Contratación municipal

Urbanismo y Medio Ambiente

Información jurídica de relevancia

40%
Corporación y gobierno local | Organización administrativa | Patrimonio municipal |

Conoce mejor a los/as **concejales/as de tu Ayuntamiento**. Te contamos sus atribuciones, funciones, responsabilidades, declaraciones de bienes, retribuciones...

» **Corporación y gobierno local**

- » Órganos de gobierno
- » Alcaldía
- » Tenientes de Alcalde y concejales/as delegados/as
- » Pleno municipal
- » Junta de Gobierno Local
- » Junta de Portavoces
- » Comisiones Informativas
- » Consejo Asesor de Planeamiento
- » Consejos Sectoriales
- » Grupos políticos municipales

20% Representantes en otras instituciones

- » Dedicación y retribuciones de la Corporación
- » Registro de intereses y actividades
- » Asignaciones económicas a los grupos políticos



2 Ilustrazioa: 'Erakundeari eta antolaketari buruzko informazioa' atalaren analisia

Información institucional y organizativa

Sesiones de los órganos de gobierno

Estrategia y acción de gobierno

Gestión económica

Contratación municipal

Urbanismo y Medio Ambiente

Información jurídica de relevancia

17%
Corporación y gobierno local | **Organización administrativa** | Patrimonio municipal |

Conócenos mejor a las **personas que formamos parte de tu Ayuntamiento** y descubre para qué estamos, qué servicios te prestamos o cómo contactar con nosotros/as.

» **Organización administrativa**


- » Organigrama funcional
- 33% Órganos administrativos de control
- » Áreas municipales
- » Organismos autónomos
- » Sociedades municipales
- » Otras entidades



4 Ilustrazioa: 'Erakundeari eta antolaketari buruzko informazioa' atalaren analisia

- Gobernu organoak
- Udalbatzako kideen lanaldia eta ordainsariak
- Organigrama funtzionala
- Udal Alorrak

2016ko martxoaren 4an aurkeztu zen Korporazioa eta tokiko gobernu atalari dagozkion bisitei erreparatzen badiegu, honako informazioa topatuko dugu:



3 Ilustrazioa: 'Korporazioa eta tokiko gobernu' atalari dagokion orrialdearen analisia

Orrialde honek guztira 2291 bisita bakar izan ditu ikusle guztientzat argitaratu zenetik 2016ko abenduaren 31ra bitartean.

Atal horren barruan hiritarrentzat interesgarrien suertatu diren edukiak ikus ditzakegu jarraian:

	Título de la página	Número de visitas a páginas	Número de páginas vistas únicas
		39.565 % del total: 3,76 % (1.052.874)	26.121 % del total: 3,90 % (669.053)
1.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Pleno - Composición - Detalle	13.215 (33,40 %)	9.727 (37,24 %)
2.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local	4.728 (11,95 %)	2.290 (8,77 %)
3.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Pleno municipal - Composición	3.204 (8,10 %)	1.706 (6,53 %)
4.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Grupos políticos municipales - Composición	2.568 (6,49 %)	1.765 (6,76 %)
5.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Dedicación y retribuciones de los/as miembros de la Corporación	2.114 (5,34 %)	1.278 (4,89 %)
6.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Pleno municipal	1.529 (3,86 %)	818 (3,13 %)
7.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Los/as Tenientes de Alcalde y concejales/as delegados/as	1.398 (3,53 %)	795 (3,04 %)
8.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Alcaldía	1.224 (3,09 %)	831 (3,18 %)
9.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - ¿Cuáles son los órganos de gobierno del Ayuntamiento?	1.067 (2,70 %)	756 (2,89 %)
10.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Comisiones Informativas	973 (2,46 %)	729 (2,79 %)
11.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Junta de Gobierno Local	738 (1,87 %)	516 (1,98 %)
12.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Los/as Tenientes de Alcalde y concejales/as delegados/as - Tenientes de Alcalde/sa	720 (1,82 %)	462 (1,77 %)
13.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Los/as Tenientes de Alcalde y concejales/as delegados/as - Concejales delegados	708 (1,79 %)	475 (1,82 %)
14.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Representantes en otras instituciones	696 (1,76 %)	579 (2,22 %)
15.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Consejos Sectoriales	683 (1,73 %)	483 (1,85 %)
16.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Grupos políticos municipales	627 (1,58 %)	419 (1,60 %)
17.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Consejo Asesor de Planeamiento	441 (1,11 %)	326 (1,25 %)
18.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Asignaciones económicas a los grupos políticos municipales	393 (0,99 %)	274 (1,05 %)
19.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Junta de Portavoces	391 (0,99 %)	276 (1,06 %)
20.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Pleno municipal - Organización	350 (0,88 %)	261 (1,00 %)
21.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Registro de intereses y actividades	315 (0,80 %)	242 (0,93 %)
22.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Pleno municipal - Videoacta digital	269 (0,68 %)	206 (0,79 %)
23.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Entidades a las que pertenece el Ayuntamiento	262 (0,66 %)	103 (0,39 %)
24.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Pleno municipal - Clases de sesiones	191 (0,48 %)	153 (0,58 %)
25.	Ermua - Ayuntamiento - Corporación y gobierno local - Pleno municipal - Convocatoria y orden del día	176 (0,44 %)	146 (0,56 %)

2 Taula: 'Korporazioa eta tokiko gobernua' atalean gehien bisitatutako edukiak

Taulan ikusten den moduan, Udalaren konposizio politikoak, hau da, Udalbatza osatzen duten zinegotziak zeintzuk diren, 10.000 bisita bakar baino gehiago jaso ditu abian jarri zenetik 2016ko abenduaren 31ra artean. Udal talde politikoen osakerak 1.800 bisita bakar inguru jaso ditu, eta Udalbatzako kideen lanaldiak eta ordainsariak, aldiz, 1.300.

Gainera, atal horretako gainontzeko orrialdeek izan dituzten bisitak erakusten dizkizuegu.

Azkenik, denboran zehar atal honetako bisitek izan duten garapena azaldu nahi dizuegu:



4 Ilustrazioa: 'Korporazioa eta tokiko gobernua' atalak izandako bisiten garapena erakusten duen grafikoa

4.2.2 Gobernu-organoen bilkurak

Jarraian, atal jakin honetan hiritarren artean jakinmin gehien piztu duten eduki edo arloak azaltzen dira.



5 Ilustrazioa: 'Gobernu-organoen bilkurak' atalaren orrialearen analisisia

Arlo honetan, aipatzekoa da 'saioen harpidetza' atalean klik egiten duten pertsonen kopurua. Txosten hau idatzi den unean 17 pertsona daude Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordeetara harpidetuta; 16 pertsona Kontuen/Ogasunaren Informazio Batzorde Berezieta eta 18 pertsona Osoko Bilkura saioetara.

4.2.3 Estrategia eta gobernuaren jarduera

Jarraian, atal honetan hiritarren aldetik interes handiena piztu duten edukiak azaltzen dira.



6 Ilustrazioa: 'Estrategia eta gobernuaren jardura' ataleko orrialdearen analisia

Alor honetan modu orekatuan banatu da hiritarren interesa erakundearen Mapa Estrategikoaren, ardatz estrategikoen eta Gobernu programaren artean.

Dena dela, jatorrizko ataletara jauzi egiten badugu, 2016ko martxoaren 4an abian jarri zenetik hiritarren aldetik interes gehien erakarri duten orriak zeintzuk diren ikusi ahalko dugu.



7 Ilustrazioa: 'Antolaketa administratiboa' atalaren orrialdearen analisia

Atal honetan argi ikusten da, orrialdearen analisiari esker, herritarrentzat erakargarrienak izan diren edukiak 'Udal alorrak' eta 'Organigrama funtzionala' izan direla.

Orrialde honek guztira 3.469 bisita bakar izan ditu argitaratu zenetik 2016ko abenduaren 31ra bitartean.

Atal honen barruan interes gehien piztu duten orrialdeak honakoak izan dira:

	Título de la página	Número de visitas a páginas ↓	Número de páginas vistas únicas ↓				
		44.585 % del total: 4,23 % (1.032.874)	29.909 % del total: 4,47 % (669.053)				
1.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Áreas municipales - Área de Planificación Estratégica e innovación	11.068 (24,82 %)	8.183 (27,36 %)	13.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Organismos administrativos de control - Intervención General	551 (1,24 %)	432 (1,44 %)
2.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa	6.984 (15,46 %)	3.493 (11,68 %)	14.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Organismos autónomos - Euskaltegi municipal	546 (1,22 %)	365 (1,22 %)
3.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Organigrama funcional	4.551 (10,21 %)	3.372 (11,27 %)	15.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa - Entidades a las que pertenece el Ayuntamiento	468 (1,05 %)	389 (1,30 %)
4.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa - Áreas municipales	4.432 (9,94 %)	1.918 (6,41 %)	16.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Organismos autónomos - Instituto municipal de Deportes	451 (1,01 %)	269 (0,90 %)
5.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Áreas municipales - Área de Personas	4.063 (9,11 %)	2.936 (9,82 %)	17.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa - Encuestas sobre prestación de servicios - Histórico de sondeos	71 (0,16 %)	57 (0,19 %)
6.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Áreas municipales - Área de Ciudad	3.339 (7,49 %)	2.569 (8,59 %)	18.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa - Organismos autónomos	64 (0,14 %)	52 (0,17 %)
7.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Áreas municipales - Área de Seguridad Ciudadana	2.110 (4,72 %)	1.611 (5,39 %)	19.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa - Encuestas sobre prestación de servicios - Detalle del sondeo	31 (0,07 %)	29 (0,10 %)
8.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Áreas municipales - Área de Desarrollo Local	1.965 (4,41 %)	1.429 (4,78 %)	20.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Cartas de servicios - Carta de servicios de Selección de personas	18 (0,04 %)	14 (0,05 %)
9.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa - Otras entidades en las que participa el Ayuntamiento	1.166 (2,62 %)	842 (2,82 %)	21.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Cartas de servicios - Carta de servicios de Protección de datos	11 (0,02 %)	7 (0,02 %)
10.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Organismos administrativos de control - Secretaría/Organos de gobierno	1.101 (2,47 %)	875 (2,93 %)	22.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Cartas de servicios - Carta de servicios de Contratación	7 (0,02 %)	6 (0,02 %)
11.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa - Organismos administrativos de control	964 (2,16 %)	648 (2,17 %)	23.	Ermua - Ayuntamiento - Organización administrativa - Encuestas sobre prestación de servicios	7 (0,02 %)	4 (0,01 %)
12.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Organismos autónomos	603 (1,35 %)	396 (1,32 %)	24.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Cartas de servicios - Carta de servicios de la Biblioteca municipal	6 (0,01 %)	6 (0,02 %)
				25.	Ayuntamiento - Organización administrativa - Organismos autónomos - Instituto Municipal de Deportes	5 (0,01 %)	4 (0,01 %)

3 Taula: 'Antolaketa administratiboa' atalean 2016ko martxoaren 4tik abenduaren 31ra bitartean jasotako bisiten zerrenda

Taulan agerian gelditzen den moduan, gehien bisitatu diren atalak honakoak dira:

- Plangintza Estrategikoa eta Berrikuntza Alorra, 8.000 bisita bakar baino gehiagorekin.
- Organigrama funtzionala eta klasikoa, 3.300 bisita bakar baino gehiagorekin.
- Pertsonen Alorra, ia 3.000 bisita bakarrekin.
- Hiria Alorra, 2.500 bisita bakar baino gehiagorekin.
- Hiritarren Segurtasuna, 1.500 bisita bakar baino gehiagorekin.
- Toki-Garapen Alorra, ia 1.500 bisita bakarrekin.

4.2.4 Ekonomi kudeaketa

Jarraian, atal honetan hiritarren aldetik interes handiena piztu duten edukiak azaltzen dira.

[Información institucional y organizativa](#)

[Sesiones de los órganos de gobierno](#)

[Estrategia y acción de gobierno](#)

[Gestión económica](#)

[Contratación municipal](#)

[Urbanismo y Medio Ambiente](#)

[Información jurídica de relevancia](#)

Presupuesto municipal | Participación en el Presupuesto municipal |

Publicamos **toda la información relativa al Presupuesto municipal**, así podrás conocer mejor qué se ingresa, en qué se gasta y a qué se destina el dinero de tus impuestos.

- » Presupuesto municipal de 2016
 - » Las prioridades que nos marcamos para 2016
 - » Ingresos de 2016
 - » Gastos de 2016
 - » Ejecución del Presupuesto de 2016
 - » Indicadores económico-financieros de 2015
 - » Información completa del Presupuesto de 2016
 - » Evolución de la gestión económica
 - » Presupuestos de los Organismos Autónomos de 2016
 - » Presupuestos de las Sociedades Públicas Municipales de 2016



8 Ilustrazioa: 'Ekonomi kudeaketa' atalaren orrialdearen analisia

Atal honen barnean, hiritarrek gehienbat gastuak eta indarrean dagoen aurrekontuko informazio dokumentala kontsultatzen dute.

Ekonomia atala aztertzen hasten bagara, honako informazioa jaso dezakegu:

Economía

[1.4% Información general](#) |
 [2.2% Participa en el Presupuesto](#) |
 [11% El Presupuesto municipal de 2016](#) |
 [0.3% Presupuesto de los Organismos Autónomos de 2016](#) |
 [4.1% Presupuestos de las Sociedades Públicas Municipales de 2016](#) |
 [2.5% Informes de Auditoría de Cuentas y Fiscalización](#) |
 [0.5% Liquidación del Presupuesto municipal de 2015](#) |
 [0.3% Calendario del contribuyente de 2017](#) |
 [4.1% Recaudación](#) |
 [2.8% Histórico de presupuestos](#)

③ Economía

③ Nuestro compromiso con la ciudadanía: un Ayuntamiento más transparente

El Presupuesto es el documento más importante que cada año aprueba el Ayuntamiento. Contiene la previsión de los ingresos que se esperan obtener y de los gastos que como máximo se podrán realizar cada año.

Aunque el Presupuesto es un documento de gran complejidad jurídica y económica queremos avanzar hacia un Ayuntamiento más transparente y promover que los vecinos y vecinas de Ermua no sean simples observadoras de los acontecimientos y decisiones y que puedan convertirse en protagonistas de la gestión del municipio.

Con este objetivo ofrecemos la información relevante del Presupuesto para que la ciudadanía pueda conocer qué se ingresa, en qué se gasta y a qué se destina el dinero de nuestros impuestos.

Además de profundizar en la cultura de la transparencia mediante la mejora de la información sobre la gestión económica y financiera del Ayuntamiento, confiamos en que esta iniciativa contribuya a mejorar la eficiencia y eficacia de la gestión municipal.

- » [Información general](#)
- » [Participa en el Presupuesto de 2016](#)
- » [Presupuesto Municipal de 2016](#)
- » [Presupuestos de los Organismos Autónomos](#)
- » [Presupuestos de las Sociedades Públicas Municipales](#)
- » [Informes de Auditoría de Cuentas y Fiscalización](#)
- » [Liquidación del Presupuesto de 2015](#)
- » [Calendario del contribuyente de 2017](#)
- » [Recaudación](#)
- » [Histórico de presupuestos](#)



9 Ilustrazioa: 'Ekonomia' atalaren orrialdearen analisia

Goiko irudian ikusi daitekeen moduan, hiritarren artean interes gehien sortu duten atalak '2016ko Udal Aurrekontua', 'Informazio orokorra', 'Diru-bilketa' eta 'Aurrekontuen Historikoa' izan dira.


Atal honek 2016. urtean zehar 1.100 bisita bakar baino gehiago jaso zituen.

Jarraian, hiritarrek atal honetan gehien bisitatu dituzten orrialdeak dituzue ikusgai:

	Título de la página	Número de visitas a páginas	Número de páginas vistas únicas	Promedio de tiempo en la página
		9.425 % del total: 0,73 % (1.285.051)	5.692 % del total: 0,70 % (812.486)	00:00:38 Media de la visita: 00:01:00 (-37,42 %)
1.	Economía - Histórico de Presupuestos - Presupuesto Municipal	1.773 (18,81 %)	836 (14,69 %)	00:00:48
2.	Ermua - Economía	1.671 (17,73 %)	1.167 (20,59 %)	00:00:22
3.	Economía - Presupuesto municipal - Información completa	1.277 (13,55 %)	423 (7,43 %)	00:00:31
4.	Economía - Presupuesto Municipal - Las prioridades que nos marcamos	689 (7,31 %)	451 (7,92 %)	00:00:32
5.	Economía - ¡Participa en el Presupuesto 2014! - Información y difusión del proceso	296 (3,14 %)	91 (1,60 %)	00:00:17
6.	Economía - Información general - ¿Qué es el Presupuesto?	228 (2,42 %)	170 (2,99 %)	00:00:36
7.	Economía - ¡Participa en el Presupuesto!	207 (2,20 %)	152 (2,67 %)	00:00:40
8.	Economía - Histórico de presupuestos	204 (2,16 %)	100 (1,76 %)	00:00:19
9.	Economía - Información general - Estructura del presupuesto	187 (1,98 %)	148 (2,60 %)	00:01:23
10.	Economía - Información general - Hoja de ruta del Presupuesto: el Mapa Estratégico Municipal	170 (1,80 %)	155 (2,72 %)	00:01:48
11.	Economía - Liquidación del Presupuesto	169 (1,79 %)	108 (1,90 %)	00:00:59
12.	Economía - Información general - ¿Qué contiene el Presupuesto?	167 (1,77 %)	135 (2,37 %)	00:01:23
13.	Economía - Presupuesto municipal - Gastos: ¿en qué se gasta e invierte los recursos del Ayuntamiento? - Gastos por capítulos	160 (1,70 %)	103 (1,81 %)	00:00:57
14.	Economía - Informes de fiscalización de la Intervención Municipal	148 (1,57 %)	81 (1,42 %)	00:00:21
15.	Economía - Presupuesto Municipal - Ejecución del Presupuesto	139 (1,47 %)	97 (1,70 %)	
16.	Economía - Recaudación	127 (1,35 %)	107 (1,88 %)	
17.	Economía - Presupuesto municipal - Ingresos: ¿cómo se financia el Ayuntamiento? - Ingresos por capítulos	109 (1,16 %)	76 (1,34 %)	
18.	Economía - Presupuestos de los Organismo Autónomos - Instituto Municipal de Deportes - Ingresos por capítulos	106 (1,12 %)	69 (1,21 %)	
19.	Economía - Presupuesto Municipal - Indicadores económico-financieros	104 (1,10 %)	71 (1,25 %)	
20.	Economía - Presupuesto municipal - Gastos: ¿en qué se gasta e invierte los recursos del Ayuntamiento? - Transferencias corrientes	102 (1,08 %)	64 (1,12 %)	
21.	Economía - Presupuesto Municipal - Gastos: ¿en qué se gasta e invierte los recursos del Ayuntamiento? - ¿a qué se destina los recursos del Ayuntamiento?	98 (1,04 %)	66 (1,16 %)	
22.	Economía - Presupuesto municipal - Ingresos: ¿cómo se financia el Ayuntamiento? - Origen de los ingresos	97 (1,03 %)	79 (1,39 %)	
23.	Economía - Calendario del contribuyente	93 (0,99 %)	76 (1,34 %)	
24.	Economía - Información general - ¿Qué significa? Glosario de términos presupuestarios	88 (0,93 %)	68 (1,19 %)	
25.	Economía - Presupuestos de las Sociedades Públicas - PROMOSA - Ingresos por capítulos	86 (0,91 %)	64 (1,12 %)	

4 Taula: 2016an zehar 'Ekonomia' atalean hiritarrek gehien bisitatu dituzten orrialdeak

Jarraian, bisita horiek denboran zehar izan duten garapena ikus daiteke:



10 Ilustrazioa: 'Ekonomia' atalak jasotako bisitek 2016an zehar izan duten garapena erakusten duen grafikoa

4.2.5 Udalaren kontratuak

Jarraian, atal honetan hiritarren aldetik interes handiena piztu duten edukiak azaltzen dira.




11 Ilustrazioa: 'Udalaren kontratuak' atalaren orrialdearen analisia

Interes handia pizten duen atala da honakoa, bai piztu ere: aurreko irudian ikus daitekeen moduan, bisiten zati handiena jasotzen duen arloa da, %40a, hain zuzen.

4.2.6 Hirigintza eta ingurumena

Jarraian, atal honetan hiritarren aldetik interes handiena piztu duten edukiak azaltzen dira.



12 Ilustrazioa: 'Hirigintza eta ingurumena' atalaren orrialdearen analisia

Atal honen barruan, Hiri Antolamenduko Plan Orokorak du garrantzi guztia.

HAPOren barnean, hiritarrei arreta gehien deitu dien hirigintzako informazioa honakoa izan da:

Urbanismo

13%

0.9%

Urbanismo | Medio ambiente | Abastecimiento de agua | Grafitis | Guía del arbolado urbano

Plan General de Ordenación Urbana (PGOU)

El diseño del espacio público influye en el modelo de ciudad

El Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Ermua analiza cuáles son las necesidades de la ciudad y sus vecinos y vecinas, y reserva los suelos que acogerán las infraestructuras, viviendas y equipamientos que utilizamos cotidianamente.

La disposición de los espacios y volúmenes, los materiales, circulaciones, percepciones y sensaciones transmiten el sentir de la ciudad a sus habitantes y visitantes, por lo que el diseño urbano además de definir el modelo de ciudad que queremos contribuir a desarrollar entre el ayuntamiento y las personas que vivimos en Ermua, debe favorecer, no solo en su concreción sino también desde su concepción en el planeamiento, que la ciudad se abra a las nuevas oportunidades para mejorar la calidad de vida de los ciudadanos y ciudadanas que la habitan, fomentando un mayor entendimiento y reconocimiento del espacio público por sus habitantes.

Este es el objetivo del Plan General, planificar el crecimiento de Ermua para hacer ciudad, en definitiva, organizar y ordenar el crecimiento urbano de la ciudad de modo que éste sea un todo armónico favoreciendo una mayor integración y cohesión social a través de la creación de espacios públicos de calidad, amables y habitables para todas las personas que vivimos en Ermua, y, sobre todo, asegurar un modelo de desarrollo sostenible que basándose en la estructura actual de ocupación del suelo, la mejore y preserve y proteja nuestro medio ambiente y los valores ambientales y paisajísticos de la ciudad para las generaciones futuras.

Porque conservar y mejorar la ciudad que habitamos para dejar a nuestro hijos e hijas una Villa más ordenada, agradable y atractiva para vivir en ella que la que recibimos de nuestros predecesores es una tarea que nos incumbe a todos/as, porque las personas tenemos muchas más necesidades que las que se satisfacen en nuestra propia vivienda y la ciudad debe responder a ellas: paseos, zonas verdes, equipamientos comunitarios, culturales y asistenciales, donde además de habitar, se viva.

4.9%

4.0%

5.6%

6.9%

33%

6.4%

1.2%

» Marco legal

¿Qué es el Plan General?

Grado de materialización del anterior Plan General

Nuevos retos: nuevas oportunidades

Tramitación del Plan General

Documentación del Plan General

Información/difusión del proceso




Plan General de Ordenación Urbana

13 Ilustrazioa: Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren orrialdearen analisia


Irudian argi ikusten den moduan, atal honetan bisita gehien jaso duten azpiatalak Plan Orokorraren Dokumentazioa, Prozesuaren Informazioa/Hedapena eta Erronka eta aukera berriak izan dira.

2016. urtean zehar, honakoak izan dira gehien bisitatu diren orrialdeak:

☐	Título de la página ?	Número de visitas a páginas ? ↓	Número de páginas vistas únicas ?
		3.625 % del total: 0,28 % (1.285.051)	2.409 % del total: 0,30 % (812.486)
☐	1. Ermua - Urbanismo - Plan General de Ordenación Urbana	1.034 (28,52 %)	656 (27,23 %)
☐	2. Urbanismo - Plan General de Ordenación Urbana - Documentación del Plan General	835 (23,03 %)	627 (26,03 %)
☐	3. Urbanismo - Plan General de Ordenación Urbana - Tramitación	455 (12,55 %)	318 (13,20 %)
☐	4. Urbanismo - Revisión del Plan General de Ordenación Urbana - Información y difusión del proceso	364 (10,04 %)	121 (5,02 %)
☐	5. Urbanismo - Plan General de Ordenación Urbana - Grado de materialización del anterior Plan - Aparcamiento	242 (6,68 %)	196 (8,14 %)
☐	6. Urbanismo - Plan General de Ordenación Urbana - ¿Qué es?	199 (5,49 %)	125 (5,19 %)
☐	7. Urbanismo - Revisión del Plan General de Ordenación Urbana - Razones de la revisión - Grado de materialización del Plan General anterior	130 (3,59 %)	63 (2,62 %)
☐	8. Urbanismo - Revisión del Plan General de Ordenación Urbana - Nuevos retos: nuevas oportunidades	125 (3,45 %)	90 (3,74 %)
☐	9. Urbanismo - Plan General de Ordenación Urbana - Grado de materialización del anterior Plan - Propuestas de desarrollo residencial	54 (1,49 %)	46 (1,91 %)
☐	10. Urbanismo - Plan General de Ordenación Urbana - Grado de materialización del anterior Plan - Otras actuaciones	50 (1,38 %)	44 (1,83 %)

5 Taula: 2016. urtean 'Hiri Antolamenduko Plan Orokorra' atalean gehien bisitatu diren orrialdeak


Denboran zehar bisitek izan duten garapena ere erakusten dizuegu beheko irudian.



14 Ilustrazioa: 'Hiri Antolamenduko Plan Orokorra' ataleko bisiten garapena

4.2.7 Udal arau eta ordenantzak

Jarraian, atal honetan hiritarren aldetik interes handiena piztu duten edukiak azaltzen dira.



15 Ilustrazioa: 'Udal arau eta ordenantzak' atalaren orrialdearen analisia

Atal honetan agerian gelditzen da jendeari gehien interesatzen zaizkion edukiak udal ordenantzak eta erabaki judizialak direla.

Aipatzekoa da, era berean, erabaki judizialen atalak 30 bisita jaso dituela 2016ko martxoaren 4an abian jarri zenetik abenduaren 31ra bitartean. Hitzarmenak atalak 2016an zehar 222 bisita bakar izan ditu, eta Ordenantzen arloak, aldiz, 1.600 bisita bakar.

4.3 ITA Gardentasun Indizea

Atal hau dinamikoa da, eta 2012tik Transparencia Internacional España Gobernuak Kanpoko Erakundeak zehaztutako indikadoreetan gure Udalak dituen datuak erakusten ditu.

2016. urtean zehar 341 bisita bakar jaso zituen atal honek, eta horietatik 9 euskarazko atalera iritsi ziren.

Jarraian, aipatutako bisitek denboran zehar izandako garapena ikus daiteke:



16 Ilustrazioa: 'ITA Gardentasun Indizea' atalak jasotako bisiten garapena

4.4 Informazioa eskuratzeko eskubidea


Atal hau 2016ko martxoaren 4tik dago ikusgai udal webgunean.

Harrezkero, 114 bisita bakar jaso ditu.



17 Ilustrazioa: 'Informazioa eskuratzeko eskubidea' atalak jasotako bisiten garapena

Jarraian, orrialdearen analisia ikus daiteke, zein esteka sakatu diren xehetasunez ikusi ahal izateko.



18 Ilustrazioa: 'Informazioa eskuratzeko eskubidea' orrialdearen analisia 2016ko martxoaren 4tik abenduaren 31ra bitartean

4.5 Baloratu gure gardentasuna

Atal hau 2016ko martxoaren 4tik dago ikusgai udal webgunean.

Harrezkero, 66 bisita bakar jaso ditu.



19 Ilustrazioa: 'Baloratu gure gardentasuna' atalak jasotako bisiten garapena

2016. urtean zehar Gardentasunaren inguruko inkestan sei emaitza jaso ditugu, eta batez besteko emaitza arlo honetan **hamarretik 7,6 puntukoa izan da**.

4.6 Udal Gardentasunarekin lotura duten edukiak

4.6.1 Gobernu organoen saioak

2015eko maiatzaren 6tik, *streaming* bidez nahiz eskaripean eskaintzen dira Ermuko Udaleko gobernu-organoen saioak. *Streaminga* bi bide ezberdinetatik burutzen da, arrazoi ezberdinak medio. Batetik, ordainpeko bideo-zerbitzari berezi bat erabiltzen da, eta bestetik, Ermuko Udalaren Youtubeko kanal ofiziala. Saioen eskaripeko erreprodukzioekin ere gauza berdina gertatzen da.

Jarraian, zuzeneko saioei buruzko informazio guztia ikus daiteke.

2016ko gobernu-organoen saioetako zuzeneko erabiltzaile bakarren estatistikak	
Ordainpeko bideo-zerbitzari berezia	Youtube
406 erabiltzaile	208 ikustaldi bakar

Segidan, zuzeneko saioen GB transferentzia ikus daiteke.

2016ko gobernu-organoen saioetako zuzenekoetako transferentzia (GB) datuak	
Ordainpeko bideo-zerbitzari berezia	Youtube
258,9 GB	Googlek ez du informazio hori eskaintzen

Jarraian, zuzenean gehien jarraitu diren saioak agertzen dira:

2016an zuzenean gehien jarraitu diren gobernu-organoen saioak	
Ordainpeko bideo-zerbitzari berezia	Youtube
2016ko maiatzaren 3ko Osoko Bilkura (24)	2016ko maiatzaren 3ko Osoko Bilkura (56)
2016ko ekainaren 2ko Pleno Txikia (21)	2016ko urtarrilaren 20ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (29)
2016ko martxoaren 1eko Osoko Bilkura eta 2016ko martxoaren 1eko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (19)	2016ko apirilaren 12ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (22)
2016ko maiatzaren 1eko Osoko Bilkura eta 2016ko maiatzaren 31ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (17)	2016ko ekainaren 2ko Pleno Txikia (16)
2016ko urriaren 18ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea eta 2016ko urriaren 18ko Kontuen/Ogasunaren Informazio Batzorde Berezia (14)	2016ko martxoaren 8ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (10)

2016ko utzailaren 5eko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea eta 2016ko utzailaren 5eko Kontuen/Ogasunaren Informazio Batzorde Berezia eta 2016ko utzailaren 5eko Osoko Bilkura (11)	2016ko urtarrilaren 13ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (9)
2016ko ekainaren 28ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (8)	2016ko irailaren 13ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (7)
2016ko irailaren 13ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (8)	2016ko maiatzaren 3ko Promosaren Batzorde Orokorra (5)
2016ko irailaren 6ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (6)	2016ko apirilaren 5eko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (4)

Eskaripeko zerbitzuaren inguruko datu guztiak eskaintzen ditugu lerro hauen azpian.

2016ko gobernu-organoen saioetako eskaripeko erabiltzaile bakarren estatistikak	
Ordainpeko bideo-zerbitzari berezia	Youtube
2096 erabiltzaile	378 ikustaldi bakar

A continuación, mostramos la transferencia de GB en las sesiones bajo demanda.

2016ko gobernu-organoen saioetako eskaripeko transferentzia (GB) datuak	
Ordainpeko bideo-zerbitzari berezia	Youtube
1.081 GB	Googlek ez du informazio hori eskaintzen

A continuación, mostramos los videos más visualizados bajo demanda:

2016an eskaripean gehien jarraitu diren gobernu-organoen saioak	
Ordainpeko bideo-zerbitzari berezia	Youtube
2016ko irailaren 27ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (62.985)	2016ko maiatzaren 3ko Osoko Bilkura (57)
2016ko utzailaren 19ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (11.195)	2016ko abuztuaren 30eko Ezohiko Osoko Bilkura (12)
2016ko urtarrilaren 13ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (4.892)	2016ko apirilaren 26ko Kontuen/Ogasunaren Informazio Batzorde Berezia (12)

2016ko urriaren 25eko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (2.913)	2016ko ekainaren 2ko Pleno Txikia (11)
2016ko ekainaren 14ko Kontuen/Ogasunaren Informazio Batzorde Berezia (2.196)	2016ko ekainaren 21eko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (10)
2016ko uztailaren 21eko Osoko Bilkura (1.222)	2016ko azaroaren 8ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (9)
2016ko ekainaren 2ko Pleno Txikia (890)	2016ko azaroaren 3ko Osoko Bilkura (9)
2016ko martxoaren 1eko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (571)	2016ko ekainaren 28ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (9)
2016ko urtarrilaren 20ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (498)	2016ko urtarrilaren 20ko Gai Orokorraren eta Osoko Bilkuraren Informazio Batzordea (9)

5 GARDENTASUN PASIBOAREN EBALUAZIOA

5.1 Udal informazio publikoa eskuratzeko eskaerak

Hiritarren Partaidetza eta Gardentasun Zerbitzuak guztira **34 informazio eskaera** jaso ditu 2016ko maiatzetik abendura¹ bitartean. Lerro hauen azpian agertzen den taulan jaso dira eskaera guztiak, espediente zenbakiaren eta eskatutako informazioaren arabera zehaztuta.

Esp. zkia	Eskaera
1577/2016	Ermuko Guardia Zibilaren kuartelaren inguruko informazioa
1815/2016	Herrian izandako istripuen datuak bidegorria egiteko proiektua garatzeko
1816/2016	Herritar baten etxebizitzaren datuak zigor espediente bat izapidetu ahal izateko
1836/2016	Herriko biztanle kopuruaren inguruko informazioa
1933/2016	Ermuko GKEen inguruko informazioa
1979/2016	Estatistika Institutu Nazionalak inkestak egin ahal izateko hainbat herritarren telefono zenbakiak
2015/2016	Kirol elkarteek jasotako diru-laguntzen inguruko datuak
2047/2016	Txalaparta eta Zabal tabernen inguruko espediente guztien kontsulta
2073/2016	2016ko aurrekontuak 2016ko martxoaren 31n izan duen exekuzio egoerari buruzko datuak
2158/2016	San Inazio 5 gazteen lokalari buruzko informazioa
2204/2016	Izarra Centreren bideragarritasunaren eta zuntz optikoaren inguruko informazioa
2243/2016	Etxebizitzan baja eman izanaren espedientearen kontsulta
2289/2016	Aldapa 7 eraikinaren txostenaren kopia
2436/2016	Egikor S.A. enpresaren lursailaren inguruko informazioa


¹ Unitate administratibo honek izapidetu zuen lehenengo espedienteari 2016ko maiatzaren 11n eman zitzaion erregistroa. Data hori baino lehen, egun erabiltzen den prozeduraren faltan, beste kanal batetik izapidetu dira eskaerak.

2645/2016	Izelaieta 30era ibilgailuarekin sartzeari buruzko araudiaren informazioa
2909/2016	Zubiaurre 20 eta 22 komunitateen ur fekalen hodien inguruko informazioa
2992/2016	Seme txikiaren aldaketa eta espediente hori egiteko beharrezkoa den dokumentazioaren inguruko informazioa
3504/2016	Ondarezko erreklamazioen inguruko datuak
3523/2016	Eraikina desjabetzeko espedientearen inguruko informazioa
3535/2016	Izarra Centren liburutegia zabaltzearen inguruko informazioa
3601/2016	Betiondo urbanizatzearen inguruan Alkatearekin hitz egiteko zita eskaera
3641/2016	██████████ ² Zubiaurren aparkalekua egiteko eraikuntza proiektua ikustea Udalaren artxihoan (DBLO)
3645/2016	Ongaraiko 16. portalera sartzeko arrapala eraikitzeko obraren inguruko espedientearen kontsulta
3715/2016	Udazkenean eta neguan gaztainak eta txurroak saltzeko postuak zein urtetan jarri diren erakusten duen informazioa
3744/2016	██████████ etxebizitzaren planoen kontsulta (DBLO)
3761/2016	Iparragirre 2 zenbakiko dokumentazioaren kontsulta (memoria eta aurrekontua)
3774/2016	██████████ etxebizitzaren planoen kontsulta (DBLO)
3795/2016	Ermuko bizilagun baten helbidearen inguruko datuen eskaera
3796/2016	Ermuko bizilagun baten helbidearen eta izan ditzakeen ondasunen inguruko datuak
3818/2016	Titularretako bat den etxebizitza batean erroldatuta dauden pertsonen inguruko informazioa, eta erroldatzeko aurkeztutako dokumentazioa
3873/2016	Merkatu Plazaren planoak eta dokumentazioa
3932/2016	██████████ lokalaren aktibitatearen inguruko egiaztagiria eta titularraren datuak (DBLO)
3935/2016	██████████ zenbakiko eraikinaren planoen kontsulta (DBLO)
3936/2016	Okin Zuri 7 exekuzio unitatearen planoen kontsulta

Batez beste hilean lau eskaera baino gehiago jaso dira zortzi hilabete horietan, eta abendua izan da kopuru altuena erregistratu duena (10). Abuztuan eta urrian, aldiz, eskaera bana baino ez da jaso. Daten eta jasotako idatzien inguruko informazio osoa lerro hauen ostean osatutako taulan eta grafikoan kontsultatu daiteke.

² Izaera pribatua eta pertsonala duten datuak estali egin dira Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa betetzeko.

Eskaera kopurua 2016ko maiatza-abendua



Abiapuntuko udal bulegoetan sarrera eman zaien informazio publikoa eskuratzeko 34 eskaeretatik, hiru Ermuko Udaleko beste unitate administratibo batzuetan izapidetu dira. Izan ere, herritarrek eskatutako informazioak duen izaeraren arabera, beste kanal batzuetatik bideratzen da, hala nola, hirigintzari lotutako datu jakin batzuk direnean edota administrazio ezberdinen arteko elkarlana tartean dagoenean. Hori horrela, 34 eskaeretatik hiru mota horretako izapideez arduratu eta erantzuna ematen dieten Alorretara bidali ziren zuzenean. Beste Alorrek landutako espedienteak honakoak dira, zehazki: 2436/2016 (Hiria Alorrek kudeatua), 3523/2016 (Alkatetzak kudeatua) eta 3795/2016 (Abiapuntuk kudeatua).


Bestalde, Alkatearekin Betiondoko urbanizazioaz hitz egiteko zita eskaera, 3601/2016 espedienteen jaso, bertan behera utzi da, ez baita informazio publiko eskaera bat, zentzu hertsian. Dena dela, eskaera egin duen herritarrek Alkatetzaren erantzun zuzena jaso du.

Gauzak horrela, Hiritarren Partaidetza eta Gardentasun Zerbitzuak guztira informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeko **30 eskaera** izapidetu ditu 2016ko maiatzetik abendura bitartean.

5.2 Eskaerak kanalaren, eskatzailearen eta tipologiaren arabera

Hiritarrek eskura dituzten kanal ezberdinen bitartez burutzen dituzte euren informazio eskaerak: posta arrunta, posta elektronikoa, erregistro elektronikoa eta aurrez aurre Abiapuntuko bulegoetan.

Lerro hauen ostean duzuen grafikoan ikusi daitekeen bezala, 2016ko maiatzetik abendura bitartean egin diren informazio eskaera gehienak **aurrez aurre egikaritu dira Abiapuntuko bulegoetan (19)**. Beste hainbat hiritarrek, aldiz, posta elektronikoa (5) eta erregistro elektronikoa (4) erabili dituzte. Bi eskatzailek soilik hautatu dute posta arrunta.




Informazioa eskatu duten pertsonen sexuari dagokionez, ia ez dago ezberdintasunik gizonezkoen eta emakumezkoen artean, hamabi eta hamar eskaera erregistratu baitituzte, hurrenez hurren. Gainera, zortzi enpresa, elkarte edo erakundek ere eskatu diote informazioa Ermuko Udalari.

Bestalde, gai aldetik, Udal honi eskatutako informazioa oso anitza da. Hiritarren Partaidetza eta Gardentasun Zerbitzua informazio eskaerak baloratzeaz arduratzen da, eta gaiaren arabera, eskaerak erakundeko arlo ezberdinetara bideratzen ditu. Horrela, eskatzen den informazioaren arabera, horretaz arduratzen diren pertsonak hiritarrei erantzuna eman diezaioke.

Zentzu horretan, 2016ko maiatzetik abendura bitartean, Ermuko Udalari gehien eskatu zaion informazioa Hiria Arloko **Hiri-plangintza eta Kudeaketa Sailak** lantzen duena izan da; guztira, bederatzi eskaera kudeatu ditu sail horrek.

Abiapuntuk eta Hirigintza Diziplinak jorratzen dituzten gaiek ere hiritarren jakinmina piztu dute, eta sei eta hiru eskaera jaso dituzte alor horiek, hurrenez hurren.

Gainontzeko udal zerbitzuei dagokienez, gehienek bi eskaera edo bakarra jaso dituzte, beheko grafikoan eskaera kopuruz nahiz portzentajez irudikatuta agertzen den moduan.



5.3 Hiritarrei erantzuna ematea eta epeak betetzea

Informazio publikoa eskuratzeko eskaera espedienteen izapidetzea jardura berria da erakunde osoarentzat, baina horrek ez gaitu legea betetzetik eta hiritarrei behar den moduan eta epean erantzutetik salbuesten.

2017ko otsailaren 2ra artean, hiritarrek egindako 30 kontsultetatik 28 erantzun dira, Udal honi aurkeztu zaizkion kontsulten %93,3a, hain zuzen.

Erantzun diren 28 eskaeretatik 27tan, kontsultaren aurreko erabakia baiezkua izan da eta eskatutako dokumentazioa jaso dute interesdunek, bai euren etxeetan, baita bide elektronikoen bitartez ere.

Erabakia desberdina izan den kasu bakarra 2909/2016 espedientearen izan da, hiritar batek Zubiaurre 20 eta 22 komunitateen ur fekalen hodien inguruko informazioa eskatu zuen kasuan, alegia. Izan ere, Udala ez da gai horretan eskumena duen erakundea; beraz, interesdun pertsonari Gipuzkoako Uraketa bulegoaren kontakturako datuak igorri zitzaizkion bere kontsulta bertan egin ahal izateko.

2017ko otsailaren 2ko datan oraindik erantzunik jaso ez duten bi eskaerei dagokienez (2204/2016 eta 3715/2016 espedienteak), gai ezberdinak jorratzen dituzten arren, bietan erantzun faltaren arrazoia oso antzekoa da. Batak Izarra Centreren bideragarritasunaren eta zuntz optikoaren inguruko informazioa eskatzen du, eta besteak, aldiz, Ermuan gaztainak eta txurroak saltzeko postuak zein urtetan jarri diren jakin nahi du. Bi kasuetan, dokumentazioa eratze prozesuan dago, Udalaren artxiboetan informazio guztia topatzen saiatzen ari dira, ez dago osorik edota topatu den informazioak ez du hiritarren eskaera guztiz erantzuten.

Erantzuteko behar izaten den denboraren harira, legearen arabera, erantzun behar duen organoak eskaera jasotzen duenetik gehienez hilabete bateko epea dugu interesdun pertsonari informazio eskaera onartzen edo ukatzen den jakinarazteko.

Posible da erantzuteko epea hilabete bat gehiagoz luzatzea, betiere hiritarrari aldeztu aurretik jakinarazita, eskatzen den informazioa konplexua edo oso zabala denean.

Ermuko Udalak jasotako eskaeren kasuan, erantzuteko batez besteko epea 29,3 egunekoa da. Zifra horrekin legea betetzen den arren, egunetik egunera hobetzen joatera behartzen gaitu, denbora laburragoan zerbitzu eraginkorragoa eskaintzea lortu ahal izateko.

Jarraian xehetasun gehiagorekin ikus daiteke informazio eskaera bakoitza erantzuteko behar izan den denbora:

Esp. zkia	Eskaera	Erantzuteko epea (egunak)
1577/2016	Ermuko Guardia Zibilaren kuartelaren inguruko informazioa	21
1815/2016	Herrian izandako istripuen datuak bidegorria egiteko proiektua garatzeko	13
1816/2016	Herritar baten etxebizitzaren datuak zigor espediente bat izapidetu ahal izateko	3
1836/2016	Herriko biztanle kopuruaren inguruko informazioa	2
1933/2016	Ermuko GKEen inguruko informazioa	18
1979/2016	Estatistika Institutu Nazionalak inkestak egin ahal izateko hainbat herritarren telefono zenbakiak	24
2015/2016	Kirol elkarteek jasotako diru-laguntzen inguruko datuak	6
2047/2016	Txalaparta eta Zabal tabernen inguruko espediente guztien kontsulta	216
2073/2016	2016ko aurrekontuak 2016ko martxoaren 31n izan duen exekuzio egoerari buruzko datuak	5
2158/2016	San Inazio 5 gazteen lokalari buruzko informazioa	68
2204/2016	Izarra Centreren bideragarritasunaren eta zuntz optikoaren inguruko informazioa	Idatzizko erantzun ofizialik gabe
2243/2016	Etxebizitzan baja eman izanaren espedientearen kontsulta	57
2289/2016	Aldapa 7 eraikinaren txostenaren kopia	7
2645/2016	Izelaieta 30era ibilgailuarekin sartzeari buruzko araudiaren informazioa	83
2909/2016	Zubiaurre 20 eta 22 komunitateen ur fekalen hodien	5

	inguruko informazioa	
2992/2016	Seme txikiaren aldaketa eta espediente hori egiteko beharrezkoa den dokumentazioaren inguruko informazioa	13
3504/2016	Ondarezko erreklamazioen inguruko datuak	46
3535/2016	Izarra Centren liburutegia zabaltzearen inguruko informazioa	9
3641/2016	██████████ Zubiaurren aparkalekua egiteko eraikuntza proiektua ikustea Udalaren artxiboan (DBLO)	29
3645/2016	Ongaraiko 16. portalera sartzeko arrapala eraikitzeako obraren inguruko espedientearen kontsulta	28
3715/2016	Udazkenean eta neguan gaztainak eta txurroak saltzeko postuak zein urtetan jarri diren erakusten duen informazioa	Erantzunik gabe
3744/2016	██████████ etxebizitzaren planoen kontsulta (DBLO)	18
3761/2016	Iparragirre 2 zenbakiko dokumentazioaren kontsulta (memoria eta aurrekontua)	18
3774/2016	██████████ etxebizitzaren planoen kontsulta (DBLO)	15
3796/2016	Ermuko bizilagun baten helbidearen eta izan ditzakeen ondasunen inguruko datuak	13
3818/2016	Titularretako bat den etxebizitza batean erroldatuta dauden pertsonen inguruko informazioa, eta erroldatzeko aurkeztutako dokumentazioa	2
3873/2016	Merkatu Plazaren planoak eta dokumentazioa	32
3932/2016	██████████ lokalaren aktibitatearen inguruko egiaztatzea eta titularren datuak (DBLO)	24
3935/2016	██████████ zenbakiko eraikinaren planoen kontsulta (DBLO)	24
3936/2016	Okin Zuri 7 exekuzio unitatearen planoen kontsulta	24

Taulan argi ikus daitekeenez, eskaera batzuk hilabeteko epearen barruan erantzuten dira inongo arazorik gabe, baina kasu batzuetan hiritarrak 30 egun baino gehiago itxaron behar izan du informazioa jaso ahal izateko, zazpi hilabeteraino iritsiz egoeretako batean. Zergatik sortzen dira horrelako atzerapenak? Ikus dezagun banan-banan:

- 2047/2016 – Txalaparta eta Zabal tabernen inguruko espediente guztiak: 216 egun erabakia eman arte. Hiritarrak eskatutako dokumentazio kopuru handiak eragin du atzerapena. Izan ere, duela 30 urte baino gehiagoko informazioa eskatzeaz gain, etengabe eguneratzen diren artxiboak dira. Hori horrela, dokumentu guztiak eskuratzea denboran asko luzatu den lana izan da, espedientea amaitzeko aurreikusitako epea gaindituz.
- 2158/2016 – San Inazio 5 zenbakiko gazteen lokalari buruzko informazioa: 68 egun. Aitzaki gisa erabiltzeko asmorik gabe, aipatzekoa da udako hilabeteetan zehar, Udaleko langileen oporrekin batera, informazio bilaketa moteldu egiten da, eta denbora gehiago

behar izaten da informazio eskaerei behar bezala erantzuteko. Hau izan da egoera horrek kaltetutako kasuetako bat.

- 2243/2016 – Etxebizitzan baja eman izanaren espedientearen kontsulta: 57 egun. Atzerapenaren zergatia aurreko kasuan azaldutako berdina da.
- 2645/2016 – Izelaieta 30era ibilgailuarekin sartzeari buruzko araudiaren informazioa: 83 egun. Prozeduraren berritasunak, ongi ez ezagutzeak eta asmo onak askotan horrelako akatsak eragiten dituzte. Hiritarrari erantzuna emateko ardura zuen pertsonak aurrez aurre eta ahoz eman zion informazioa interesdunari, prozedurari jarraitu gabe. Hori horrela, eskatutako informazioa egun berean eskaini zen arren, administrazio espedienteak ezin izan da itxi 83 egun igaro arte, orduan gelditu baitzen erantzuna idatziz erregistratuta prozeduraren barruan.
- 3504/2016 – Ondare erreklamazioen inguruko informazioa: 46 egun. Beste behin, formazio faltak eta prozeduraren inguruko ezjakintasunak eraginda, informazioa epez kanpo iritsi zaio interesdunari.
- 3873/2016 – Merkatu Plazaren planoak eta dokumentazioa: 32 egun. Informazioa eskatu duen pertsonak epean jaso du informazioa, Hiria Alorrera joan baita kontsulta aurrez aurre egitera. Dena dela, prozedura zabalik mantendu da beste egun batzuetan zehar, erabakia eta dokumentazioa espedienteak kudeatzeko aplikazioan erregistratu eta kasua itxi den arte.

6 ONDORIOAK

Informazio publikoa eskuratzeko eskaeren kudeaketa eginkizun berria da erakunde osoarentzat, baina berria izateak ez du esan nahi baztergarria edo beste batzuk baino garrantzi gutxiagokoa denik. Udalari informazio publikoa eskatzea hiritarren oinarrizko eskubidea da, eta gardentasunak urrezko aukera eskaintzen digu erakundeari gure bizilagunen errespetua eta zerbitzu publikoekiko konfiantza irabazi eta bermatzeko.

Informazio publikoa lortzeko 30 eskaera zortzi hilabetetan, eskaera asko edo gutxi dira? Ez da erraza balorazio objektiboa egitea, prozedura berria izanik, ezin baita zehaztu zenbat den asko eta zenbat gutxi. Datuak beste erakundeekin konparatu ditzakegu, ordea. Esaterako, Bizkaiko Foru Aldundiak hiritarren 25 kontsulta jaso ditu 2015eko uztailetik 2016ko abendura bitartean. Zentzu horretan, argi ikusten da ermuarrek modu esanguratsuan erabiltzen dutela informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea.

Bestalde, egia da hiritarrek galderak egin ditzaten bultzatu behar dugula erakundeok, administrazio publikoarekiko dituzten zalantza guztiak aurkeztera animatuz. Izan ere, zenbat eta galdera gehiago erantzun eta zalantza gehiago argitu, hiritarrek sektore publikoarengan duten konfiantza ere hazi egiten da, erakundearen sinesgarritasunarekin batera.

Herriko bizilagunek Udalarekiko duten konfiantza eta erakundearen sinesgarritasuna areagotu ahal izateko, eskainiko dugun informazioak kalitatezkoa izan behar du, ezbairik gabe, eta eskatutakoari egokitu behar zaio. Hori behar bezala bete ahal izateko, langileria formazioa ezinbestekoa da.

Aurretik aipatutakora itzuliz, udal informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzea berria da, bai hiritarrentzat, baita Udaleko langileriarentzat ere. Hori horrela, oinarritzkoa da erakunde honetan lan egiten duten pertsona guztiak kontzientziatuta egotea eta kasu askotan hainbat buruhauste eragiten dizkiguten informazio eskaerei nola erantzun jakiteko oinarri teoriko nahiz praktikoa izatea.

Zergatik formazio teorikoa eta praktikoa? Ezin delako ongi erantzun testuingurua ezagutu gabe. Horrek ez du esan nahi erakundeko pertsona guztiek legeriaren ezagutza sakona izan behar dutenik; nahikoa da kontuan izan beharreko oinarritzko puntu batzuk barneratzearekin, esaterako, erantzuteko ditugun epeak, hainbatetan ezjakintasunagatik gainditu direnak. Horrela, gainera, eskaerei erantzuna ematen dieten pertsonen interesdunak asetuko dituen kalitatezko informazioa eskainiko dutela bermatzen da.

Horren harira, edozein hiritarrek egikaritu dezakeen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea kudeatzea ahalbidetzen duen prozedura abian izan den lehen urte honetan, arazo batekin egin dugu topo. Izan ere, prozedura horrek hainbat lotune ditu hiritarrek aurkeztutako beste izapide batzuk kudeatzeko erabiltzen diren beste prozedura batzuekin. Horrek zailtasunak aurkezten ditu bai erabiltzaileentzat, baita Abiapuntuko langileentzat ere, sarritan zalantzak izan baitituzte eskaera batzuk edukiaren arabera nola izapidetu erabakitzean.

Zalantza horiek, gehienbat, honakoak kudeatzeko prozedurekin sor daitezke: Alkatearekin, Alkateordeekin, zinegotziekin nahiz gai jakin batzuetan adituak diren teknikariek aurretiazko hitzorduak; gobernu organoak fiskalizatzeko eskubidea egikaritzuz zinegotziek egiten dituzten informazio eskaerak; kexa edo iradokizunak; hirigintzako kontsultak; ARCO eskubideak izenekoak (Ikusteko, Zuzentzeko, Ezabatze eta Aurka egiteko eskubideak); edo Udaltzaingoareen txosten edo atestatuen kopien eskaerak.

Hori horrela, hiritarrei eta Abiapuntuko langileei prozedura horien artean ezberdintzen lagunduko dieten baldintzak azalduko ditugu, gai bakoitzari dagokion trataera emateko.

Aurretiazko hitzordua eskatzeko prozedura: ohikoena Alkatearekin, Alkateordeekin edo zinegotziekin hitz egin nahi duten pertsonen informazio jakin bat eskuratu edo zerbait galdetu nahi dutela adieraztea da. Kasu gehienetan, ordea, ez da administrazio espedienterik zabaltzen; interesdun pertsonak bere arazoa edo zalantza plazaratzen du eta azalpen bat jasotzen du, normalean udalaren ekintza jakin bati lotuta izaten dena. Honek ez du eragozten pertsona horrek geroago beste eskubide batzuk egikaritu ahal izatea.

Kasu horietan, horretarako espresuki sortutako aurretiazko hitzorduetarako prozedura erabiliko da Ermuko Udalaren eta bertako hiritarren arteko harremanak kudeatu ahal izateko. Horrela, erreferentzia puntu bakar bat zehazten da Udaltzako kideei edota gaiaren arabera egokitzen diren teknikariei egin nahi zaizkien bisitak edo kontsultak jaso eta kudeatzeko.

Gobernu organoen fiskalizazio prozedura: Udaltzako kideek euren eskura dute prozedura berezi hau, Alkateari Udal administrazioaren esku dauden aurrekariak, datuak edo informazioa eskatu ahal izateko. Horrela, kontu publikoetan parte hartzeko oinarritzko eskubidea egikaritzeko beharrezko informazioa eskuratu dezakete. Eskubide hori CE 23,2 artikuluan jasotzen da, parte-hartzea ahalbidetzen duen informazioa eskatzeko eta jasotzeko eskubidean.

Zinegotziek euren kargurako izan ordez, titulu pertsonalean eskatzen badute informazioa, ordea, edozein hiritarri dagokion informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeko prozeduran sartuko litzateke eskaera.

Kexen eta iradokizunen prozedura: honen helburua hiritarrek aurkeztutako kexa edo iradokizun idatziak jasotzea eta horiei erantzuna ematea da, edozein bidetatik iritsi direla ere, betiere Udalaren jarduerari edo eskumenekoak diren ekimenei buruzkoak direnean. Prozedura honetatik at gelditzen dira matxuren abisuak, trafikoko edo bestelako zigorrak edo multak eta ondarezko erantzukizunei lotutako kalteengatiko erreklamazioak. Kasu horietako bakoitzak badu kudeaketarako prozedura propioa.

Hirigintzako informazio prozedura: interesdun pertsonak eskatzen duten hirigintzako informazioa eskaintzea ahalbidetzen du prozedura honek, hirigintzako zedulak eskuratu edo aktibitate bat abian jarri aurretik kontsulta egin ahal izateko. Horren bitartez, eskaera egiten duten hiritarrek modu jakin batean eraiki edo ekin daitekeen jakin dezakete, egungo udal hirigintza plangintzaren arabera, edo araudiari egokitu ahal izateko zer-nolako baldintzak bete behar dituzten ikusi dezakete.

ARCO eskubideak egikaritzea arautzen duen prozedura: pertsona fisikoek udalaren administrazio artxibategietan, automatikoak zein arruntak, jasotzen diren datu pertsonalak Ikusteko, Zuzentzeko, Ezabatzeko eta Aurka egiteko eskubideak egikaritzea arautzen du. Horrekin pertsona fisikoen intimitate pertsonala eta familiakoa izateko konstituzio eskubidea bermatzen da, Udal Erroldak edo Udalak eta bere erakunde edo sozietate anonimoek izan ditzaketen bestelako fitxategi eta artxiboetan jasotzen diren datu pertsonalen aurrean.

Zaratekin, salaketekin, obren eta kalteen erreklamazioekin... lotura duten **txosten teknikoak eta Ermuko Udaltzaingoaren trafiko istripuetako atestatuak eskatzeko eta eskuratzeko prozedura:** azken horiek aseguru enpresek eskatu ohi dituzte, eta prozedura jakin bat jarraitzen dute kasu horik guztiak kudeatzeko. Udaltzaingoaren ekintzen inguruko beste edozein informazio eskaera informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeko prozeduraren barnean landuko da.

Bestalde, kontuan izan beharreko beste faktore bat beldurra da. Egiten dugun lana erakutsi eta hiritarrek epaitu edo baloratzeko beldurra. Erakunde honetan egin dena eta egin gabe dagoena agerian uzteko beldurra. Segurtasun falta eta izu horiek atzean utzi behar ditugu, eta egiten dugun lana harrotasunez erakutsi. Izan ere, ez dugu ahaztu behar administrazio publiko bat garela, eta hiritar guztiek sortzen dugun informazioa kontsultatzeko eskubidea dutela; izan ere, informazioa euren da.

Baina, zer da hiritarrek ikusi eta jakin nahi duten hori? Zer-nolako galderak egiten dizkiete euren Udalari informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea baliatuz? Nahikoa da jasotako eskaeren gaiak ikustea “eta nirea zer?” dela nagusi ondorioztatzeko. Jendeak, orokorrean, bere kalean, auzoan edota erabiltzen dituen instalazioetan zer gertatzen den jakin nahi du. Interes pertsonala dago informazio eskaera gehienek atzean.

Baliteke, bestalde, hiritarren zati handi batek oraindik ez ezagutzea informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeko prozedura eta, horren ondorioz, ez jakitea bere Udalari edonolako galderak egiteko aukera duela. Dena dela, www.ermua.es udal webgunean artikulua ezberdinen bitartez prozedura berri honen inguruko informazioa eman da, Ermuko bizilagunentzat eskaintzen dituen aukerak azpimarratuz.

Gainera, hiritarrekiko dugun konpromisoa are gehiago indartzeko, Gardentasuneko Zerbitzuen Gutuna sortzeko lan egin dugu, Hiritarren Partaidetza eta Gardentasun Zerbitzuaren misioa, ikuspuntua eta eskaintzen diren zerbitzuak azaltzen dituen eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzari buruzko informazio guztia biltzen duena. Gutun hori aste gutxiren buruan aurkeztuko da, eta udal webgunean argitaratuko da hiritar guztiek ezagutu ahal izateko.

Bestalde, egiten dugun lana hobetzeko asmoz, pasatu den 2017ko otsailetik hasita, eskaera guztiei ematen zaizkien erantzunekin batera asebetetze inkesta labur eta sinple bat igortzen zaie interesdun pertsona guztiei, eskaini zaien zerbitzua baloratu dezaten. Galdetegi horietatik jasotzen dugun informazioan oinarrituz, zein arlotan hobetu behar dugun eta hiritarrek zerbitzu honetatik zer espero duten jakin dezakegu.

Egitasmo horien guztien helburua zerbitzua hobetzen jarraitzea, gure bizilagunei ahalik eta arretarik onena eskaintzea eta gardentasunari lotutako estrategia lantzen segitzea da. Horri esker, besteak beste, Euskal Erakunde Publikoak Bikaintasunerantz Q-Epea sarearen Praktika Onen Diploma eskuratu dugu.

Hori horrela, esandako guztiarekin, ondorioa argia da: kontzientziazioa eta formazioa. Horiek dira oinarritzko puntuak hiritarrentzat Udal gardena, gertukoa eta konfiantzazkoa osatzeko.

Ermuan, 2017ko apirilaren 25ean

Gardentasun Teknikaria eta Udal Webgunearen Administrazioilea

Sin.: Aintzane Larrañaga Korta eta Sergio Díaz Martínez